

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak NUPeko Gizarte Kontseiluaren 2014ko memoriaren berri jaso du

Unibertsitateko partaidetza-organo horretako presidente Roman Felones hartu du

Jueves, 08 de octubre de 2015

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko presidente Roman Felones hartu du bere bulegoan, eta azken horrek 2014. urteari dagokion hezkuntzako erakundearen memoria entregatu dio.



Barkos Lehendakaria, Roman Felonesekin.

NUPen Gizarte Kontseilua 1995eko maiatzean sortu zen, eta unibertsitateko gizartearen partaidetzako organoa da. Unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanetarako elementu modura jokatzeko du, eta egiteko garrantzitsuak ditu hainbat arlotan: unibertsitateko plangintza eta garapen instituzionala, kudeaketa ekonomikoa eta goi-mailako hezkuntzako zerbitzuaren errendimendua ikuskatzea; gizartearen lankidetzaren sustatzea unibertsitatearen finantzaketan, eta prestakuntza nahiz ikerketako jarduerak gizarte-beharrei egokitzea. 2008an, Gizarte Kontseiluak Nafarroako Parlamentuan onartutako lege berri bat izan zuen eta, haren bidez, aurreko eduki batzuk hobetu zituen.

Memoriaren sarreran, Roman Felonesek ondorengo puntuak nabarmentzen ditu iaz egindako jarduerak aipagarrienei lotuta: "Osoko Bilkurak hurrengo urteetako lan-ildoak onartzea, gizartearekiko harreman-arloei buruzkoak nabarmen haziz; jarduerak nabarmen haztea batzordeek egindako lan eraginkorrean oinarrituz; Kontseiluaren lana bertan kideak jartzen dituzten erakunde, gizartearen enpresak, bereziki eta unibertsitateko komunitatearen beraren aurrean ezagutzera emateko ahalegina; Kontseiluaren jardueren berri emango duen etengabe eguneratutako webgune bat abian jartzea; harreman etengabea irakaskuntzako arduradunekin, irakasleekin, ikertzaileekin eta administrazio nahiz zerbitzuetako langileekin; eta lankidetzaren indartzea Gizarte Kontseiluen G9arekin; azken horren presidentea neronez izango naiz datozen bi urteotan nire kideek hala izendatuta".